

SEGURAKO UDALA

Iragarkia

Arauzko jendaurreko informazio epea inolako alegazio edo iradokizunik jaso gabe aurkeztu denez, behin betiko onartutzat gelditu da Udaltzatarrak 2009ko uztailaren 9an hartutako erabakia, non «Segurako Udalean eta Udalerrian Euskararen erabilera sustatzeko eta normalizazioa bermatzeko Udal-Ordenantza».

Indarrean dagoen legediak dioenaren arabera, adierazitako ordenantza argitaratzen da.

Segura, 2009ko irailaren 10a.—Alkatea. (11270)

Segurako Udalean eta udalerrian, euskararen erabilera sustatzeko eta normalizazioa bermatzeko udal-ordenantza.

HITZAURREA

Errealitatearen eta indarrean dagoen legediaren arabera, Segurako berezko hizkuntza euskara da. Horregatik, Ordenantza honen helburua da, Segurako Udalean ez ezik, udalerrieremuan ere, euskararen normalizazioa bermatuko duten ondorio juridikoak garatzea, bertoko errealitate soziolinguistikoa aintzat hartuta.

Euskal Autonomia Erkidegoko berezko hizkuntza euskara da (Autonomia Estatutuaren 6. artikuluari eta hizkuntza-alorrean garatzen duen legediari jarraituz –Funtsean, 101982 Legea, azaroaren 24koa–). Eta euskara nahiz gaztelania, biak, hizkuntza ofizialak dira.

Horren guztiaren ondorio da gure Erkidegoan bi hizkuntzak erabil daitezkeela eraginkortasun eta balio juridiko osoarekin, mota guztietako harreman publikoetan eta pribatueta. Alabaina, Ordenantza honen artikulatua ez da garatzen, hizkuntza ofizial gisa gaztelania erabiltzeko dagoen eskubidea. Izan ere, soilik euskararen normalizazioa du xede. Alegia, eraginkortasunez bermatzea Seguraako berezko hizkuntzaren erabilera erreala –eta ez bakarrik teorikoa–, hiritarrek bi hizkuntza ofizialen artean aukera egin dezaketenean.

Ordenantza hau Segurako Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiko 2007-2010 Plan Estrategikoan kokatzen da, hirugarren urte estrategikoan (2009) hain zuzen ere.

Hartara, udal-izaera daukan araudi honen oinarritzko helburua da, Segurako administrazio-eremuan, kultura-alorrean eta mota guztietako harreman sozialetan, euskararen erabilera ahalmentzea, sustatzea, erraztea eta bermatzea, bere normalizazioa erabatekoa izan dadin.

Halaber, Ordenantza honek adierazten du, udal-Administrazio barruko lan-harremanei dagokienez –baita Administrazio instituzionaletako nahiz bere menpe dauden sozietate guztietakoei ere–, lan-hizkuntza euskara dela, bertan lan egiten duen pertsonalak, dagokion lanpostuari zor zaion hizkuntza-eskakizuna eskuratuta badu.

Azkenik, araudi honen xedea da, Segurako udalerrian hiritar guztiak euskaraz bizi ahal izatea edozein harremanetan edo jarduera sozialetan, kontuan hartuz 2001. urteko azken biztanleria-eroldaren arabera, Seguran erroldatuta dauden biztanleriaren %94,58ak euskaraz badakiela (Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzekeo prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren arabera erabiltzen den elebitasun tasaren indizea) eta %5,42k, berriz, ez dakiela.

AYUNTAMIENTO DE SEGURA

Anuncio

Transcurrido el plazo de información pública reglamentario sin que se haya presentado reclamación o sugerencia alguna, se ha elevado a definitivo el acuerdo inicial adoptado por el Pleno de la Corporación, en sesión celebrada el día 9 de julio de 2009, por el que se aprobaba la «Ordenanza Municipal para la promoción del uso y para garantizar la normalización del Euskera en el Municipio y Ayuntamiento de Segura».

En cumplimiento de la legislación vigente se procede a la publicación de dicha ordenanza.

Segura, a 10 de setiembre de 2009.—La Alcalde. (11270)

Ordenanza municipal para impulsar y normalizar el uso del euskera en el Ayuntamiento y municipio de Segura.

PRÓLOGO

De conformidad con la realidad y con la legislación vigente, el euskera es el idioma propio de Segura. Por ello, el objetivo de esta Ordenanza es desarrollar los elementos jurídicos que garanticen la normalización del euskera tanto en el Ayuntamiento como en el término municipal, teniendo en cuenta su realidad sociolingüística.

La lengua propia del País Vasco es el euskera (Según el artículo 6 del Estatuto de Autonomía y la legislación desarrollada en lo relacionado con la lengua –básicamente la Ley 10/1982 de 24 de noviembre–). Y tanto el euskera como el castellano, las dos, son lenguas oficiales.

Consecuencia de todo ello es que en nuestra comunidad se pueden utilizar las dos lenguas con total efectividad y valor jurídico, en todo tipo de relaciones públicas o privadas. No obstante, en el articulado de esta Ordenanza no se desarrolla el derecho al uso del castellano como lengua oficial, dado que su único objeto es la normalización del euskera. Es decir, garantizar de manera efectiva el uso real de la lengua propia de Segura –y no sólo de forma teórica– en los casos en los que la ciudadanía pueda optar entre las dos lenguas oficiales.

Esta Ordenanza se sitúa dentro del Plan Estratégico 2007-2010 del Plan General de Promoción del Uso del Euskera, en concreto dentro de su tercer año estratégico (2009).

Por tanto, el objetivo principal de esta normativa de carácter municipal es posibilitar, impulsar, facilitar y garantizar el uso del euskera en el ámbito administrativo y cultural y en todo tipo de relaciones sociales, con el fin de que su normalización sea total.

Asimismo, esta Ordenanza establece el euskera como lengua de trabajo dentro la administración municipal –así como dentro de las instituciones administrativas y dentro de las sociedades dependientes del Ayuntamiento–, siempre que el personal que presta sus servicios en las mismas tengan acreditado el perfil lingüístico correspondiente al puesto de trabajo que ocupa.

Es decir, el objeto último de esta normativa es posibilitar a toda la ciudadanía de Segura vivir en euskera en toda relación o actividad social, tomando en cuenta que, según el último censo de población realizado en el año 2001, el 94,58% de los habitantes registrados saben euskera (índice de la tasa de bilingüismo utilizado según el Decreto 86/1997 de 15 de abril, por el que se regula el proceso de normalización del uso del euskera en las administraciones públicas de la Comunidad Autónoma de Euskadi), y sólo el 5,42% restante no lo sabe.

Jakina, bi hizkuntza ofizialen ikuspegitik, Seguraako biztanle guztiei, oro har, bermatu behar zaizkie euren hizkuntza-eskubideak. Hala ere, onartu beharra dago, ia XX. mende osoan zehar, euskara baztertu egin dela Seguran, bai udal-administrazioan bai harreman publikoetan ere. Hortaz, gaur egun, Segurako Udalaren lehenatsuna da euskara sustatzea, hemengo berezko hizkuntza delako. Eta Udalarekin harremanetan jartzen diren hiritarren hizkuntza-eskubide guztiak errespetatzea, hizkuntza dela-eta inolako diskriminaziorik egitea ez baita onartzen.

Honenbestez, Ordenantzaren testu artikulatuan, lehenik eta behin, xedapen orokor multzo batek ñabarki aditzera ematen ditu erregelamendu honen oinarri juridikoak. Honek guztiak zera du helburu: Gure udalerriko eremu guztietan, segurar guztiek euskara erabiltzeko daukaten eskubidea sustatzea eta bermatzea.

LEHENENGO ATALA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. *Euskararen ofizialtasuna.*

Euskara da Segurako udal-barrutiko eta bere erakunde publiko guztietako berezko hizkuntza. Herritarrek erabili ahal izango dute, balio eta eraginkortasun juridiko osoz, mota guztietako harreman publikoetan, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. artikulua araberara eta Euskararen erabilera arautzen duen azaroaren 24ko 10/1982 Oinarriko Legearen araberara.

2. artikulua. *Udal-zerbitzuetako lan-hizkuntza.*

Segurako udal-administrazioaren menpe dauden udal-zerbitzu guztietako atalak 86/1997 Dekretuko 15 eta 16. artikuluei jarraituta sailkatuko dira. Dekretu bereko 17. artikulua araberara, berriz, izendatuko ditu atalak elebidunak edo euskarazkoak.

3. artikulua. *Nomenklaturak eta toponimoak.*

Segurako udalerriko toponimo eta nomenklaturen jatorrizko izenak euskarazkoak badira, halaxe jarriko dira, Euskararen Erabilera Arauzkotzezko 10/1982 Legearen 10. artikuluko 1. puntuak dionari jarraituta.

BIGARREN ATALA

UDAL-ADMINISTRAZIOKO EUSKARAREN ERABILERA

4. artikulua. *Administrazioko derrigorrezko hizkuntza-eskakizunak.*

Euskal Autonomia Elkarteko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen 86/1997 Dekretuaren araberara garatuko da Segurako Udaleko derrigorrezko hizkuntza eskakizunen ezarpena, beti ere Dekretuan araututako derrigorrez bete beharreko indizeak ahalbidetzen duen heinean.

1. Udal-administrazioaren zerbitzuan jarduten duten langile-zerrendan, bertako lanpostu guztiei derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna esleituko zaie (Funtzio publikoari dagokion legediaren araberara -6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa-, baita legedi hori garatzen duen araudiari jarraiki ere), ondoko helburuarekin: Administrazio-unitate guztiek euskaraz lan egitea eta zerbitzua euskaraz eman ahal izatea.

Por supuesto, desde el punto de vista de los dos idiomas oficiales, se deben garantizar los derechos lingüísticos de todos los habitantes de Segura. Si bien hay que asumir que durante casi todo el siglo XX en Segura el euskera ha sido marginado, tanto en la administración municipal como en las relaciones públicas. Por ello, hoy en día, para el Ayuntamiento de Segura es prioritaria la promoción del uso del euskera, por ser su lengua propia. Y también el respeto de los derechos lingüísticos de todos los habitantes que se pongan en contacto con el Ayuntamiento, puesto que no se admite ningún tipo de discriminación por razones lingüísticas.

Así pues, en el texto articulado de la Ordenanza, primeramente se expone detalladamente el conjunto de disposiciones que conforman la base jurídica de este reglamento. Todo ello con el siguiente objetivo: Impulsar y garantizar el derecho de todos y todas las habitantes de Segura al uso del euskera.

CAPÍTULO UNO

DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1. *Oficialidad del euskera.*

El euskera es la lengua propia del término municipal de Segura y de todas sus instituciones públicas. Sus habitantes podrán utilizarlo, con total valor y efectividad jurídica en todo tipo de relaciones públicas, en base al artículo 6 del Estatuto de Autonomía del País Vasco y a la Ley Básica 10/1982, de 24 de noviembre, sobre normalización del uso del euskera.

Artículo 2. *Lengua de trabajo de los servicios municipales.*

Todas las unidades de servicios municipales que operan bajo la administración municipal se clasificarán según los artículos 15 y 16 del Decreto 86/1997. Según el artículo 17 del mismo decreto, las unidades podrán ser bilingües o euskaldunes.

Artículo 3. *Nomenclatura y toponimia.*

Aquellos topónimos y nomenclaturas del municipio de Segura que originariamente sean en euskera, se utilizarán siempre en euskera, en cumplimiento de lo dispuesto en el punto 1 del artículo 10 de la Ley 10/1982 sobre normalización del uso del euskera.

CAPÍTULO DOS

USO DEL EUSKERA EN LA ADMINISTRACIÓN MUNICIPAL

Artículo 4. *Perfiles lingüísticos preceptivos en la Administración.*

El Ayuntamiento de Segura regulará la aplicación de los perfiles lingüísticos preceptivos según el Decreto 86/1997, por el que se regula el proceso de normalización del uso del euskera en las administraciones públicas de la Comunidad Autónoma de Euskadi, siempre y cuando lo permita el índice preceptivo regulado en dicho Decreto.

1. Los puestos de trabajo existentes en la administración municipal tendrán asignado su correspondiente perfil lingüístico (Según la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca, y también según la normativa que la desarrolla), con el siguiente objetivo: Todas las unidades administrativas podrán trabajar y ofrecer su servicio en euskera.

2. Udal-Administrazioaren zerbitzuan jarduten duten langile guztiak, euren egokitutako hizkuntza-eskakizuna egiaztatu beharko dute igarotako derrigortasun data ezarrita duten kasuetan, dagokion lanpostua eskuratu ahal izateko, edo euren lanpostuei atxikita jarraitu ahal izateko, legedi autonomikoarekin bat.

5. artikulua. Zerbitzu publikoen emakidadunak.

Emakidadun batek edo Administrazioaren zerbitzuan jarduten duen pertsonala ez denak ematen dituen zerbitzu publiko guztietan, Udalak zera bermatu beharko du: Zerbitzuaren erabiltzaileari harrera egin eta erantzun diezaioten, ordenantza honen arabera, udal-administrazioari galdatzen zaizkion hizkuntza-baldintza berberetan. Honetara, kontratuaren esleipena, klausula hau betetzearen menpe egongo da.

6. artikulua. Udalaren hizkuntza-plangintza.

2007an egindako Udaleko diagnostikoa hartuko da oinarritzat 1997ko Dekretuaren (Euskal Autonomia Elkarte herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen 86/1997 Dekretua) araberrako hizkuntza-plangintza diseinatu eta martxan jartzeko. Helburu honi jarraituko zaio: Administrazio-unitate guztiak zerbitzua euskaraz eman ahal izatea eta lana euskaraz egitea udal-administrazioaren zerbitzuan jarduten duten langile guztiak. Euren lanpostuari egokitutako zereginak burutzeko eskatzen zaien euskararen ezagutza-maila egiaztatu gabe dagoen kasuetan, hori lortzeko bide eraginkorrak ezarriko dira.

7. artikulua. Pertsonala izendatzea eta kontratatzea.

1. Udalak, bere menpe lan egingo duen pertsonala hautatzeko prozesuan, ondoko irizpideekin bat jardun beharko du: Objektibotasuna, argitalpena, berdintasuna, meritua eta gaitasuna. Udalak irizpide horiei men egin beharko die, bai zuzenean Udalaren zerbitzuan jardungo duen pertsonala hautatzekoan, baita bere menpeko erakundeetako edo sozietateetako pertsonala hautatzen duenean ere. Eta irizpide berberak jarraituko dira, langile hori funtzionarioa, kontratatutakoa, finkoa ala bitartekoa denean (Euskal funtzio publikoaren Legeari –6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa—eta helburu horretarako onartu diren oinarri jarraituz.).

2. Segurako Udalaren menpeko lanpostu bat eskuratzen duen langileak –baita bere menpeko erakundeetako eta sozietateetako lortzen duenak ere– lanpostu horrek derrigortasun data igarota baldin badu, Udalak benetan izenda edo kontrata dezan, egiaztatu beharko du baduela lanpostu horren funtzioak euskaraz burutzeko gaitasuna edota lanpostuari dagokion hizkuntza eskakizuna, Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legeko 98. artikulua arabera.

3. Enpresa-emakidadunetan lan egiten duen pertsonalak, edo zerbitzu publikoak emateko Udalak kontratatzen dituen enpresetakoak, zera bermatu beharko du: Zerbitzu hori emango duela, udal-administrazioari galdatutako hizkuntza-baldintza berdinetan.

8. artikulua. Zerbitzu publikoetako pertsonalaren hizkuntza-obligazioak.

1. Udal-Administrazioan lan egiten duen pertsonalak –baita bere erakunde instituzionaletakoak nahiz menpeko sozietateetakoak ere– euskaraz egin behar du bere lana, beti ere lanpostuko hizkuntza eskakizuna egiaztatuta duen kasuan.

2. Todas las personas que trabajan en la administración municipal, a partir de la fecha de preceptividad, tendrán que acreditar el perfil lingüístico correspondiente para poder acceder a su puesto de trabajo o para poder continuar en el mismo, según la legislación autonómica.

Artículo 5. Concesionarios de los servicios públicos.

En todos aquellos servicios públicos prestados por una empresa concesionaria o personal no perteneciente a la Administración, el Ayuntamiento deberá garantizar lo siguiente: Que al usuario del servicio se le atiende y responde en base a las mismas condiciones lingüísticas exigidas a la administración municipal, según la presente Ordenanza. En consecuencia, la adjudicación del contrato se someterá al cumplimiento de esta cláusula.

Artículo 6. Planificación lingüística municipal.

Para diseñar y poner en marcha la planificación lingüística reseñada en el Decreto de 1997 (Decreto 86/1997 por el que se regula el proceso de normalización del uso del euskera en las administraciones públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco), se tomará como base el Diagnóstico del Ayuntamiento realizado en 2007. El objeto será el siguiente: Que todas las unidades administrativas que trabajan al servicio de la administración municipal puedan ofrecer el servicio y trabajar en euskera. En los casos en los que no esté acreditado el nivel de conocimiento de euskera exigido para el desempeño de su puesto de trabajo, se aplicarán vías efectivas para conseguirlo.

Artículo 7. Selección y contratación de personal.

1. El Ayuntamiento, respecto a la selección del personal que trabajará a su servicio, actuará en consecuencia con los siguientes criterios: Objetividad, transparencia, equidad, mérito y capacidad. El Ayuntamiento acatará dichos principios, bien al seleccionar al personal que trabajará directamente a su servicio, bien al seleccionar al personal que trabajará para las entidades o sociedades a su servicio. Y se aplicarán los mismos criterios tanto al personal funcionario como al contratado, sea éste fijo o eventual (Según la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca, y según también las bases aprobadas para dicho objeto.).

2. La persona que consiga un puesto de trabajo al servicio del Ayuntamiento de Segura –así mismo quien lo haga en una entidad o sociedad a su servicio–, si la fecha de preceptividad de dicho puesto está cumplida, para que el nombramiento o contrato del Ayuntamiento sea efectivo, deberá acreditar que tiene la capacidad suficiente para desempeñar las funciones de dicho puesto en euskera o el perfil lingüístico asignado a dicho puesto, según el artículo 98 de la Ley 6/1989 de Función Pública Vasca.

3. Las personas que trabajan en empresas concesionarias, o las que trabajan en empresas contratadas por el Ayuntamiento para la prestación de servicios públicos, deberán garantizar lo siguiente: Que prestarán sus servicios en las mismas condiciones lingüísticas exigidas para los trabajadores municipales.

Artículo 8. Obligaciones lingüísticas del personal de los servicios públicos.

1. El personal que trabaja en la Administración Municipal –asimismo quien lo haga en una entidad o sociedad a su servicio– deberá realizar su servicio en euskera, siempre y cuando tenga acreditado el perfil lingüístico correspondiente a su puesto de trabajo.

2. Udal-Administrazioan lan egiten duten udal-langileek –baita bere erakunde instituzionaletakoek nahiz menpeko sozietateetakoek ere–, hiritarrei lehenengo hitza euskaraz egin behar diete, beraien lanpostuko hizkuntza eskakizuna egiaztatuta duten kasuan. Baina hiritarrak hizkuntza ofizial baten hautua egiten duenean, udal-langileak hizkuntza ofizial horretan erantzungo dio herritarrari.

HIRUGARREN ATALA

EUSKARAREN ERABILERA TOKI-ERAKUNDEETAN ETA BIZITZA SOZIALAREN BILAKAERAN

9. artikulua. Udalaren menpeko toki-erakundeak.

Udalari ezargarria zaion erregimen juridiko berbera ezarriko zaie kanpora begirako hizkuntza betekizunei dagokienez, udal-korporazioak bertan eratu dituen Udalaren menpeko erakundeei, baita hala badagokio, udal-zerbitzu publikoan emakidun diren enpresei ere.

10. artikulua. Lankidetzaren hitzarmena sinatu duten entitate pribatuak.

Segurako Udalarekin lankidetzaren hitzarmen bat izenpetu dutenek, kontsumitzaileak eta erabiltzaileak diren pertsonen hizkuntza-eskubideak bermatu beharko dituzte (Eusko Legebiltzarraren 6/2003 Legearen 39. artikulua arabera) Segurako udal-barrutian, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuaren 6/2003 Legearen arabera:

a) Idatziz zein ahoz, gutxienez euskaraz harrera eginez eta erantzunez, baita euren zerbitzuei buruzko informazioa eman ere.

b) Gutxienez euskaraz errotulatu euren lokalak eta argitalpenak.

c) Gutxienez euskaraz eskainiz euren jarduerari dagozkin inprimakiak, oharak, dokumentazioa, eskaintzak edo gainerako zerbitzuak.

11. artikulua. Udal hizkuntza-paisaia.

Udala arduratuko da Ordenantza honetan jasotzen diren xedapenak bete daitezzen, bereziki lortzeko, gutxienez euskaraz errotula daitezela hiritarrei zabaldua dauden udalerriko establezimendu guztiak. Hartara, udal-erabaki bitartez egokitzat jotako diru-laguntzak finkatu ahal izango dira (Euskararen erabilaren normalizazioari buruzko 10/1982 Legearen 27. artikulua babesean).

12. artikulua. Sustapeneko jarduera publiko orokorra.

Bizitza sozialaren bilakaeran, mota guztietako jardueretan euskara sustatzearen, Segurako Udalak egokitzat jotako neurriak abiaraziko ditu. Honen helburua da, hiritar guztiak erraztea, udalerriko berezko hizkuntzan bizi daitezela. Bereziki lehentasuna emango zaio euskararen normalizazioari eta sustapenari, merkataritzako, elkartzeko, kirol eta kontsumo-jardueretan (Euskararen normalizazioari buruzko 10/1982 Legearen 26. eta ondorengo artikuluen arabera, eta Kontsumitzaileei eta Erabiltzaileei buruzko 6/2003 Legearen 37. eta ondorengo artikuluei jarraituz).

2. El personal municipal que trabaja en la Administración Municipal –asimismo quien lo haga en una entidad o sociedad a su servicio– se dirigirá a la ciudadanía primeramente en euskera, en los casos en que tenga acreditado el perfil lingüístico correspondiente a su puesto de trabajo. No obstante, cuando el ciudadano decida sobre el idioma oficial a utilizar, el trabajador responderá en dicho idioma al ciudadano.

CAPÍTULO TRES

USO DEL EUSKERA EN LAS INSTITUCIONES LOCALES Y EN EL DESARROLLO DE LA VIDA SOCIAL

Artículo 9. Entidades locales dependientes del Ayuntamiento.

Aquellas entidades locales creadas por la corporación municipal y dependientes del Ayuntamiento, así como, en su caso, las empresas concesionarias de los servicios públicos municipales se atenderán al mismo régimen jurídico aplicable a todo el Ayuntamiento, en cuanto a las obligaciones lingüísticas a cumplir respecto a los ciudadanos.

Artículo 10. Entidades privadas que han firmado un convenio de colaboración.

Aquellas entidades que tengan formalizado un convenio de colaboración con el Ayuntamiento de Segura deberán garantizar (Según el artículo 39 de la ley 6/2003 del Parlamento Vasco) los derechos lingüísticos de sus consumidores e usuarios dentro del ámbito territorial del Ayuntamiento de Segura, de conformidad con la Ley 6/2003 que regula el Estatuto de Consumidores e Usuarios:

a) Como mínimo acoger y atender a las personas en euskera, tanto por vía oral como por vía escrita, así como informar en euskera sobre los servicios que ofrecen.

b) Como mínimo colocar los rótulos de sus locales y editar sus publicaciones en euskera.

c) Como mínimo ofrecer en euskera aquellos impresos, avisos, documentaciones, ofertas y el resto de servicios correspondientes a la actividad que desarrollan.

Artículo 11. Paisaje lingüístico municipal.

El Ayuntamiento se responsabilizará del cumplimiento de lo dispuesto en esta ordenanza, y, en especial, de la aplicación de todo lo referente a la rotulación en euskera de aquellos establecimientos que se hallen dentro del municipio y estén dirigidos a los ciudadanos en general. Para ello, se podrán fijar mediante acuerdos municipales las ayudas económicas que se consideren oportunas. (Al amparo del artículo 27 de la ley 10/1982 sobre la normalización del uso del euskera).

Artículo 12. Actividades públicas en general para el fomento del euskera.

El Ayuntamiento de Segura pondrá en marcha todas aquellas medidas que considere oportunas para la promoción del uso del euskera en todo tipo de actividades desarrolladas en el transcurso de la vida social. De esta manera, se pretende facilitar a todos los ciudadanos el uso de la lengua propia del municipio en su vida cotidiana. En especial, se dará prioridad a la normalización y promoción del uso del euskera en actividades mercantiles, asociativas, deportivas y de consumo (Según el artículo 26 y siguientes de la ley 10/1982 sobre la normalización del uso del euskera y el artículo 37 y siguientes de la Ley 6/2003 sobre Consumidores y Usuarios).

LAUGARREN ATALA

SEGURAKO HERRITARRENTZAKO ETA ENTITATE
PRIBATUENTZAKO DIRU LAGUNTZAK ETA BETE
BEHARREKO HIZKUNTZA IRIZPIDEAK

13. artikulua. Unibertsitateetako udako euskarazko ikastaroak.

Eskola-orduetatik kanpo egiten diren ikastaroek jasoko dituzte laguntzak. Zehazki, hainbat unibertsitatek ematen dituzten euskarazko udako ikastaroek: Udako Euskal Unibertsitateak, Euskal Herriko Unibertsitateak.

Laguntzak jasoko dituzten ikastaroak euskaraz ematen direnak izango dira, beren gaia edozein delarik ere. Ikastaro horietara joaten direnei matrikularen %50 ordainduko dio Udalak (urtero Udalak erabakiko du matrikulako diru kopuru maximoa zenbatekoa izango den), baldintza hauek betez gero:

- Ikaslea edo langabea izatea.
- Seguran erroldatuta egotea ikastaroa hasi baino bi urte lehenagotik.

— Ikastaroan %80ko asistentzia, behintzat, izatea.

Laguntzak matrikula ordaintzeko eta ikastarora joateko garraioa ordaintzeko (trena edo autobusa erabiltzearenak soilik) izango dira.

Ordainketak banku transferentzia bidez edo txeke bidez egingo dira.

Prozedura hau jarraituko da:

Eskaerak egiteko epea irailaren 30ean bukatuko da. Agiri hauek aurkeztu behar dira:

- Nortasun agiriaren fotokopia.
- Ordainagiria.
- Langabezia-txartela.
- Asistentzia ziurtagiria.
- Eskaera-orria, beteta.

Horretarako, Udalak urtero erabakiko du guztira zenbat diru bideratuko duen. Laguntzak emateko egongo den dirua eskari guztiei erantzutera ez bada iristen, proportzioan ordainduko zaio eskari bakoitzari.

Tramitazioak prozedura hau jarraituko du:

- Laguntza eskaera egitea.
- Komisioaren lehendakariaren txostena.
- Komisioaren proposamena.
- Gobernu Batzordearen erabakia.

Eskatzaile bakoitzak eskaera bakarria egin beharko du, egin dituen ikastaro guztientzat balioko duena, eta eskaerek datu hauek izan beharko dituzte:

— Eskatzailearen izena eta abizenak (adin txikikoa bada tutorearenak), eta helbidea (jakinarazpena egiteko).

- Eskaera zergatik egiten den.
- Zinpeko aitortpena, diru-sarrerarik ez duela esaten duena.

CAPÍTULO CUATRO

AYUDAS ECONÓMICAS DIRIGIDAS A LOS
CIUDADANOS E INSTITUCIONES PRIVADAS DE
SEGURA Y REQUISITOS LINGÜÍSTICOS A CUMPLIR
PARA LA OBTENCIÓN DE LAS MISMAS

Artículo 13. Cursos de veranos organizados por las universidades e impartidos en euskera.

Se ofrecerán ayudas económicas para la realización de cursos fuera del horario escolar, en concreto aquellos cursos impartidos en euskera y que son organizados por diversas universidades para el periodo de verano: Udako Euskal Unibertsitatea, Universidad del País Vasco.

Los cursos objeto de estas ayudas, sea cual sea la materia sobre la que traten, deberán ser impartidos en euskera. Toda aquella persona que acuda a dichos cursos podrá obtener del Ayuntamiento una ayuda por el importe del 50% de la matrícula (cada año el Ayuntamiento acordará el importe máximo a abonar en concepto de matrícula), siempre que cumpla los siguientes requisitos:

- Ser estudiante o estar en el paro.
- Estar empadronado en Segura como mínimo dos años antes de la realización del curso.

— Haber asistido como mínimo al 80% del curso.

Las ayudas serán destinadas al pago de la matrícula y a los gastos de desplazamiento (únicamente el transporte en tren o autobús).

Los pagos se efectuarán vía transferencia o por medio de cheque.

Para ello se seguirá el siguiente procedimiento:

El plazo para la presentación de solicitudes finalizará el 30 de setiembre, y junto con la solicitud deberán presentarse los siguientes documentos:

- Fotocopia del documento de identidad.
- Factura.
- Tarjeta de desempleo.
- Certificado de asistencia al curso.
- Impreso de solicitud debidamente cumplimentado.

El Ayuntamiento acordará anualmente la cantidad total que asignará a tal fin. En caso de que dicha cantidad asignada sea inferior al importe necesario para atender a todas las solicitudes presentadas, se repartirá la misma de manera proporcional.

Las ayudas se tramitarán de la siguiente manera:

- Solicitud de la ayuda.
- Informe del presidente de la comisión.
- Propuesta de la comisión.
- Acuerdo de la comisión de Gobierno.

Cada solicitante deberá presentar una única solicitud, en la que hará constar todos los cursos realizados y para los que solicita la ayuda. Estos son los datos que se recogerán en el impreso de solicitud:

— Nombre y apellidos de la persona solicitante (si es menor de edad, los de la persona tutora), y la dirección (a efectos de notificación).

- Motivo de la solicitud.
- Declaración jurada de no disponer de ingresos.

- Eskatzailearen sinadura, lekua eta eguna.
- Udalak eska dezakeen beste edozein dokumentu.

Eskaera eredia II. eranskinean dago.

Eskatzaileak agiri hauek aurkeztuko dituzte:

- Eskatzailearen Nortasun Agiriaren fotokopia.
- Matrikula eta garraioa ordaindu izanaren fotokopiak.
- Langabezian egonez gero, aktualizatutako langabezia-txartela.

Dokumentu horiez gain, irakasleak edo zentroak egindako asistentzia-ziurtagiria (gutxienez %80ko asistentzia izan duela frogatzen duena) ere entregatu beharko da.

Eskaerak aurkezteko azken eguna irailaren 30a izango da.

Eskaerak erregistratu ondoren, Komisioaren lehendakariak txostena egingo du, dagokion komisiorako.

Dokumentazioa jaso eta txostena egin ondoren, Hezkuntza eta Gazteria Komisioak eskaerak banan-banan aztertuko ditu, eta bakoitzari dagokion proposamena egingo du: Laguntza ematea edo ez ematea, eta ematea erabakitzen bada, zenbatekoa.

Komisioaren proposamenak banan-banan aztertu eta erabakiko dira Udal Gobernu Batzordean, eta Batzorde hau izango da eskatzaileari erabakia jakinaraziko diona.

Jakinarazpenean Udalak emandako laguntzaren zenbatekoa (laguntza badagokio) ere agertuko da.

14. artikulua. Euskalduntzeko eta euskaraz alfabetatzeko ikastaroak.

Euskara ikasteko, euskaraz alfabetatzeko, EGA ateratzeko edo euskararen jakintzan sakontzeko ikastaroek jasoko dituzte laguntzak. Ikastaro horiek HABE-k homologatutako edozein euskaltegi emandakoak izango dira.

Euskalduntze eta alfabetatze ikastaroetara joaten direnei, ordaindu dutenaren erdia itzuliko die Udalak, baldintza hauek betez gero:

- Seguran erroldatua egotea (ikastaroa hasi baino urtebete lehenagotik). Horrela izan beharko da ikastaroak irauten duen epe guztian. Hori horrela ez balitz, hurrengo ikasturtean berritua izena emateko konpromisoa hartzea baldintza modura onartuko da. Bietakoren bat betetzen ez bada, laguntza jasotzeko eskubi-dea galduko da.

- %80ko asistentzia izatea.
- Beste inongo erakundetatik diru laguntzarik ez jasotzea.

- Beste nonbaitetik diru-laguntza jaso izanez gero, diferentzia ordainduko dio Udalak.

- Udalak, urtero erabakiko du zenbat diru bideratuko duen horretarako. Eskatzaile guztien artean kopuru hori gaindituz gero, prorrateatu egingo da eta proportzioan emango zaie diru laguntza.

- Firma de la persona solicitante, lugar y fecha de la solicitud.

- Cualquier otro documento que pueda solicitar el Ayuntamiento.

El modelo de solicitud es el que figura en el Anexo II de este documento.

Junto con la solicitud el solicitante deberá presentar los siguientes documentos:

- Fotocopia del Carnet de Identidad del solicitante.
- Fotocopia del abono de la matrícula y del transporte.
- Tarjeta de desempleo actualizada, en el caso de encontrarse en dicha situación.

Además de los documentos anteriormente citados, el solicitante deberá presentar el certificado de asistencia expedido por el profesor o centro que ha impartido el curso, donde certifique que ha asistido al menos al 80% del curso.

El plazo de presentación de solicitudes finalizará el 30 de setiembre.

Una vez registradas las solicitudes, el presidente de la comisión elaborará el informe para la correspondiente comisión.

Recogida la solicitud y realizado el informe correspondiente, la Comisión de Educación y Juventud estudiará cada una de las solicitudes y realizará la propuesta que considere oportuna en cada caso: Aceptar o denegar la ayuda y, en caso de que se acepte, la cantidad que le ha sido asignada.

La Comisión Municipal de Gobierno estudiará y resolverá de manera individual todas y cada una de las propuestas presentadas, y será ella también quien notifique de la resolución adoptada a los solicitantes.

En la notificación de la ayuda aparecerá también el importe de la misma (en caso de que le corresponda alguna ayuda).

Artículo 14. Curso de euskaldunización y de alfabetización en euskera.

Serán subvencionados también los cursos de euskaldunización, alfabetización, obtención del título EGA o de profundización en el conocimiento del euskera. Estos cursos deberán estar impartidos por alguno de los euskaltegis homologados por HABE.

Las personas que soliciten ayuda por asistencia a cursos de euskaldunización y alfabetización en euskera recibirán del Ayuntamiento una ayuda por un importe correspondiente a la mitad del coste de los mismos, siempre que cumplan los siguientes requisitos:

- Estar empadronado en Segura (un año antes a la realización del curso). Será obligatorio hallarse en esa condición durante todo el tiempo que dure el curso. En caso contrario, se aceptará como condición el compromiso de inscribirse el próximo curso. Si no se cumpliesen ninguno de los dos citados requisitos, el solicitante perdería la posibilidad de obtener la ayuda solicitada.

- Asistir al 80% del curso.
- No haber recibido ninguna otra ayuda de otra institución para el mismo fin.

- En caso de que haya recibido alguna otra ayuda con el mismo fin de otra institución, el Ayuntamiento solo abonará la diferencia.

- El Ayuntamiento acordará anualmente el importe que asignará a tal fin. En caso de que dicha cantidad asignada sea inferior al importe necesario para atender a todas las solicitudes presentadas, se repartirá la misma de manera proporcional.

Ordainketak banku transferentzia bidez edo txeke bidez egingo dira. Tramitazioak prozedura hau jarraituko du:

- Laguntza eskaera egitea.
- Komisioaren lehendakariaren txostena.
- Komisioaren proposamena.
- Gobernu Batzordearen erabakia.

Eskatzaile bakoitzak eskaera bakarria egin beharko du, datu hauekin:

— Eskatzailearen izena eta abizenak (adin txikikoa bada tutorearenak), eta helbidea (jakinarazpena egiteko).

- Eskaera zergatik egiten den.
- Zinpeko aitortpena, diru-sarrerarik ez duela esaten duena.
- Eskatzailearen sinadura, lekua eta eguna.
- Udalak eska dezakeen beste edozein dokumentu.

Eskaera eredia IV. eranskinean dago.

Aurkeztu beharreko dokumentuak.

- a) Eskatzailearen Nortasun Agiriaren fotokopia.
- b) Matrikula ordaindu izanaren agiriak.
- c) %80 asistentzia, behintzat, izan duela frogatzen duen agiria. Eskolak eman dituen zentroak emandakoa izango da agiri hau.

Eskaerak aurkezteko azken eguna irailaren 30a izango da.

Eskaerak erregistratu ondoren, Komisioaren lehendakariak txostena egingo du, dagokion komisiorako.

Dokumentazioa jaso eta txostena egin ondoren, Hezkuntza eta Gazteria Komisioak eskaerak banan-banan aztertuko ditu, eta bakoitzari dagokion proposamena egingo du: Laguntza ematea edo ez ematea, eta ematea erabakitzen bada, zenbatekoa.

Komisioaren proposamenak banan-banan aztertu eta erabakiko dira Udal Gobernu Batzordean, eta Batzorde hau izango da eskatzaileari erabakia jakinaraziko diona.

Jakinarazpenean Udalak emandako laguntzaren zenbatekoa (laguntza badagokio) ere agertuko da.

15. artikulua. Kultur, kirol eta aisialdi taldeei diru laguntzak emateko irizpideak.

Kultur, kirol eta aisialdi taldeek egiten dituzten ekintzak diruz laguntzeko irizpideak garatzen direnerako, kontuan hartu beharko dira honako irizpide hauek:

Idatzizko irizpideak:

— Ezagunak edo nahiko erabiliak diren euskal hitz edo esaldiak euskaraz bakarrik idatziko dira.

— Euskaraz eta gaztelaniaz antzera idazten diren hitz eta esaldiak euskaraz bakarrik idatziko dira.

— Testu elebidunetan, euskarazkoa orriaren gainaldean edo ezker aldean ipiniko da.

Los pagos se efectuarán vía transferencia o por medio de cheque. Las ayudas se tramitarán de la siguiente manera:

- Solicitud de la ayuda.
